

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN
DEIALDIA (2024)**



ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eginkizun funtsezkoa da ikerketa, ikerketa baita jakintza sortzeko tresna, irakaskuntzaren oinarria, komunitatearen aurrerapenerako baliabidea eta jakintza gizartera transferitzeko euskarria. Horrela, bada, unibertsitateak bere egiten du helburu garrantzitsuenetako bat bezala ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak prestatzea. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, zeharkakotasuna eta transdiziplinitatea eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, bai eta beste erakunde, gizarte eragile edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

Unibertsitatearen Estatutuetan adierazten den bezala, UPV/EHUK onartu eta bermatu egiten du ikertzeko askatasuna, zientzialariek onetsitako lege eta kode deontologikoen mugen barnean. Gainera, euskara sustatzeko konpromisoa hartzen du, ikerketan eta zientziaren zabalkundean, eta berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko ikerketa bultzatzeko, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasangarria mehatxatzen dituzten arazoak. Alde horretatik, ikerketak ekarpena egingo dio, era kontziente eta erabakigarrian, garapen jasangarrirako Estrategiaren 2030 Agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzeari.

UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoak "Unibertsitateko I+G taldeen artean diziplinaz gaindiko lankidetzaren sustatzea" Ikerkuntza eta Transferentzia ardatzaren helburuetako bat bezala jasotzen du, ekintza espezifiko bezala taldeen arteko diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko lankidetzarako deialdi publikoak bultzatzea definituz. Deialdi honen bidez, aintzatetsitako ikertaldeen arteko elkarlaneko ikerketa bultzatu nahi da eta, horrela, garrantzi handiko proposamen bateratuei heldu ahal izango diete, ikerketon inpaktua eta ikusgarritasuna bultzatzeko. Zehazki, planteatzen da diziplina arteko izaera areagotzera eta taldeen arteko lankidetzaren bultzatzera bideratutako ekintza espezifikoaren finantzazioa, erronka komunei heltzeko, unibertsitateko ikerketa intentsiboko institutu edo zentro berean hainbat ikertalderen elkarlaneko ikerketa bultzatzeko, eta unibertsitate taldeen eta kanpoko erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.

Era berean, UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren beste helburuetako bat ikertalde berriak sortzea eta ikertzaile berriei pizgarriak ematea da, eta berariazko ekintza bat da langile hasiberriei zuzendutako deialdiak egitea, ikertzaile nagusi gisa lidergoan has daitezten, bereziki emakume ikertzaileen lidergoa sustatuz. Deialdi hau lidergo potentziala duten ikertzaile gazte horiei zuzenduta dago bereziki, baldin eta ez badute aldez aurretik ikerketa proiektu bat gidatu, edo, egin badute, noizbehinka edo senior batekin batera egin badute. Testuinguru horretan, eta aurreko paragrafoan planteatutako helburuekin bat etorritik, diziplinarteko proiektuak bultzatuko dira bereziki, hainbat

arloren arteko elkarlaneko ikerketa konbinatzen dutenak, gizarte intereseko erronkei heldu ahal izateko, bereziki Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GJH) lotuta. Bereziki, Berdintasunerako Zuzendaritzarekin lankidetzan, 5.GJHri lotutako ikerketa bultzatuko da: genero-berdintasuna.

Globalizazioak erronka handi baten aurrean jartzen gaitu: XXI. mendeko gizarteak planteatzen dizkigun erronken aurrean erantzun kolektiboa eta elkarlanekoa ematea. Horrek eskatzen du hainbat jakintza arlo biltzen dituzten nazioarteko ikertaldeak bultzatzea eta sustatzea. Nazioartekotzea UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 2023-2026 Planaren zeharkako ardatzetako bat ere bada. Europako esparru programa, Horizon Europe, UPV/EHUk dagoeneko presentzia sendoa duen testuinguru bat da, non egungo helburuak gure ikertzaileek lidergoa bilatzean kontzentratzen diren. Bestalde, azpimarratu behar da Latinoamerika aukera bat dela maila goreneko ikerketa sustatzeko eta bultzatzeko, eta elkarlaneko erantzunak bilatzeko, etorkizuneko gizarteak zientziaren, teknologiaren, ekonomiaren, gizartearen eta abarren arloan dituen erronka handiei aurre egin ahal izateko. Deialdi honek helburu bikoitza du nazioarteko lankidetzaren testuinguru honetan. Alde batetik, UPV/EHUren ikertaldeak Europako esparruan sendotzea bilatzen du. Bestalde, "hazi finantzaketaren" bidez UPV/EHUren eta Latinoamerikako unibertsitateen arteko harreman sare bat sustatzea ahalbidetuko duen esparru bat sortu nahi da.

Deialdi honetara, guztira, 670.000 euro bideratuko dira, lau modalitatetan banatuta, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planaren programa kontratuaren barruan esleitutako finantzaketaren arabera ezarritako aurrekontu kredituaren arabera, honako ekintza hauetan: "GJHekin eta RIS3 estrategiarekin lerrokatutako taldeen arteko lankidetzaren transdiziplinarra bultzatzea", "Langile berrientzako proiektuen deialdia", "Parte hartzea eta lidergoa bultzatzea nazioarteko deialdietan, bereziki ERC grants" eta "Latinoamerikarekin graduondoko eta ikerketako harremanak sustatzea". Kopuru hau handitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu aukeren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IISIG, aurrerantzean) onespina jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du argitaratzea UPV/EHUko ikertaldeek lankidetzan eginiko ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdia (2024). Horren arabera, norgehiagoka prozesu bat irekitzen da lau modalitateri dagozkien ikerketa proiektuak hautatzeko, dokumentu honen oinarrietan jasotako prozedurarekin eta irizpideekin bat etorrira.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA ETA MODALITATEAK

1.1. Deialdi hau lau modalitatetan banatuta dago, diziplina arteko eta diziplinaz gaindiko lankidetzaren helburuei erantzuten dietenak; ikertzaile berriei laguntzea eta ikerketa nazioartekotzea. Honako hauek dira modalitateak:

1. modalitatea. Ikertaldeen arteko lankidetzako proiektuak
2. modalitatea. Hasiberriak buru dituzten ikerketa proiektuak
3. modalitatea. Horizonte Europa programako proiektuetako lidergoa
4. modalitatea. Latinoamerikarekiko ikerketa proiektuak

1.2. Deialdi honetako modalitate bakoitzeko laguntzak erabiliko dira laguntza horien bidez garatu eta gauzatu beharreko jarduerari lotutako gastuak ordaintzeko, ez beste ezer.

2. oinarria. BALDINTZA OROKORRAK ETA BATERAEZINTASUNAK

- 2.1. Deialdi honetan onartzen diren laguntzen onuradunek modalitate bakoitzean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- 2.2. Ezin izango dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan honako egoera hauetakoren batean daudenak:
 - a) Epai irmo bidez dirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dutenek.
 - b) Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean ez dituztenek.
 - c) Ebazpen irmo bidez eta dagozkion legeen arabera, dirulaguntzak jasotzeko ezintasuna dutenek.
 - d) Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egiten dituzten ikertaldeetako kideak, baldin eta edozein kiderengan aurreko egoeraren bat gertatzen bada.

1. MODALITATEA: IKERTALDEEN ARTEKO LANKIDETZA PROIEKTUAK

3. oinarria. LANKIDETZA PROIEKTUEN MODALITATEAREN XEDEA.

Modalitate honen helburua da UPV/EHUko ikertaldeen diziplinartekotasuna handitzea, taldeen eta kanpoko beste erakunde batzuen arteko elkarlana bultzatuz, era horretan aurre egiteko garrantzi handiko baterako proposamenei, haien inpaktu eta ikusgarritasunari begira.

Lankidetzazko eginiko ikerketa proiektuen helburu zehatzak honako ekintza hauetan izan behar du:

1. Europako finantziazioa duten proiektuei ekitea ahalbidetuko duten jarduera berritzaileen garapena sustatzea, bereziki osasunaren arloan, nahiz eta ez soilik eremu horretara mugatuta.
2. Ikertaldeen arteko elkarlana, Mugaz Gaindiko Lankidetzak Laborategiak (LTC) edo Joint Research Laboratory (JRL) bezalako egitasmoen bitartez;
3. Ikerketa institutu unibertsitario baten (IUI) edo ikerketa intentsiboko gune propio baten (IIIP) barruko ikertaldeen arteko lankidetzak.

4. oinarria. LANKIDETZA PROIEKTUEN IZAERA.

4.1. Eskaera UPV/EHUko ikertalde aitortuen arteko elkarlaneko ikerketara bideratuta egon behar da, guztien arteko inpaktua eta ikusgarritasuna erraztuko duten proposamen oso handiei ekiteko. Kasu guztietan parte hartu behar dute gutxienez UPV/EHUko bi ikertaldek, 5.1 oinarrian aipatutako deialdiren batean aitortuak. Modalitate horren barruan, honako lankidetzak mota hauek daude, elkarren artean baztertzailak direnak:

- a) Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute elkarlanean aritzeko Europako proiektu baten aurkezpenean. Eskaerak jaso behar ditu aurkeztu nahi den **Work Programaren** erreferentzia eta **topic-a**.
- b) Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute Mugaz gaindiko Lankidetzak Laborategi bat (LTC) sortzeko eta garatzeko; hau da, EAeko eta Frantziako erakundeek parte hartuko duten egitasmo bat (Bordeleko Unibertsitateak bereziki), ikerketa gai baten inguruan. Eskaeran adierazi behar da egungo LTCren edo aurreikusitako izena.
- c) Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute Joint Research Laboratory (JRL) bat sortzeko eta garatzeko; hau da, EAeko erakundeek parte hartuko duten egitasmo bat, ikerketa gai baten inguruan. Eskaeran adierazi behar da egungo JRLren edo aurreikusitako izena.
- d) Unibertsitateko ikerketa institutu baten (UII) edo Ikerketa intentsiboko ikergune propio baten (IIIP) jarduerak, non parte hartzen duten hainbat ikertalde aitortutak. Eskaeran adierazi behar da UII edo IIIPren izena.
- e) Aurrez aipatutako lau jarduerak ez diren beste batzuk IISIGk ebaluatuko ditu, eta onartu ahal izango dira, baldin eta 3. oinarrian deskribatutako deialdiaren xedearen barruan badaude eta ikerketa-talde bik edo gehiagok parte hartzeko baldintza betetzen badute.

Nahiz eta eskaerak UPV/EHUz gain beste erakunde batzuek parte hartzen duten partzuergoak osatzera bideratuta egon daitezkeen, deialdi honetan UPV/EHUko taldeak

baino ez dira finantzatu.

4.2. Deialdiko modalitate honi 250.000 euro esleituko zaizkio.

4.3. Eskaerak ingelesez idatzita egongo dira.

5. oinarria. ESKAERA EGITEN DUTEN IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

5.1. Ezinbesteko baldintza da proposamenean gutxienez UPV/EHUko bi ikertalde aintzatetsik eta aktibok parte hartzea. Ikertalde aintzatetsi edo aitortuak eta aktiboak dira Euskal Unibertsitate Sistemaren laguntzen 2021eko deialdian edo UPV/EHUren 2021, 2022. edo 2023. urteetako deialdietako batean finantzatuak.

5.2. Proposamenean parte hartzen duen ikertalde bakoitzak, gutxien dela, UPV/EHUko 3 pertsona aurkeztu beharko ditu ikertaldeak osatzeko. Ikertalde bakoitzak modalitate honetako proiektu bakar batean baino ezin izango du parte hartu. Ikertalde batek proiektuan parte hartzen duela ulertuko da talde horretako kideren bat lankidetzan proiektuaren ikertaldeko kide denean.

5.3. Ikertzaile nagusiek (IN) baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Doktore izatea.

b) UPV/EHU arduraldi osoz aritzea.

c) Kolektibo hauetako baten kide izatea:

- i. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako lan kontrataduna edo funtzionarioa.
- ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpustu iraunkur batean finkatzeko zain dauden kontratadun irakasleak.

5.4. Proiektuek bigarren ikertzaile nagusi bat eduki ahal izango dute eta bete beharko ditu 5.3 oinarriko baldintzak, ikertzaile nagusiaren absentzian, ikertzaile nagusi gisa jardungo duelarik.

5.5. Gutxien dela ikertzaile nagusietako batek kontratu harremana izango du UPV/EHUrekin, eta unibertsitateak bere gain hartuko ditu proiektuaren kudeaketa instituzionalari lotutako funtzioak (sinadura UPV/EHUren izenean, organikoaren maneiua, etab.).

5.6. Ikertalde eskatzailea osatzen duten gainerako pertsonak, gutxienez UPV/EHUko 3 pertsona ikertalde bakoitzeko, zein bere ikertaldeko ikertzailetzat hartu beharko dira, kontratuaren iraupenak laguntzaren gauzatzeko epea barne hartu beharko duelarik.

5.7. Eskaeran sartu ahal izango dira ikertalde eskatzaileetako kideak izan ez, baina lankidetzaren proiektua osatzen duten taldeekin proiektu komun bat aurkezten duten ikertzaileak.

5.8. Ikertaldeko ezein kidek (ez eta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, berariaz geldituko da proiektu horietatik kanpo.

5.9. Ezin izango dute modalitate honetako eskabide batean parte hartu UPV/EHUko taldeen arteko lankidetzarako ikerketa proiektuak egiteko laguntzen 2023ko deialdian parte hartzen duten ikertaldeek, ez eta talde horietako kideek ere.

5.10. 4.1. oinarrian jasotako eskaeren kasuan, laguntza hau bateraezina izango da UPV/EHU mugikortasunerako eta ikerketa emaitzak zabaltzeko laguntzen deialdian jasotako nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea sustatzeko III. modalitateko laguntza batekin.

6. oinarria. LANKIDETZA PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

6.1. Proiektuen iraupena **bi urtetakoa** izango da.

6.2. Eskatutako laguntzak honako hauetarako finantzaketa jaso ahal izango du:

- a) Langileen kontratazioa
- b) Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi behar izango dira nahitaez.

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektuaren amaiera data baino sei hilabete lehenago. Epe hori igarotakoan, epigrafe honi esleitutako finantzaketa, erabili ez dena, kendu egingo da.

- c) Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada. Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, baita ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.
- d) Bidaiak eta dietak: ikerlana dela-eta egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, bai eta, gehien dela, lau aste arteko egonaldi laburrenak ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskarian. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarrizketak, etab), joan-etorrien kostua ere bidaiari eta dietari atalean sartuko da. Hautagarria izango da, halaber, lankidetzaren horretatik eratorritako emaitzak aurkezten diren kongresuetan izena emateko kuotak

ordaintzea, bai eta Europako proposamenak prestatzeko joan etorriak egitea ere.

- e) Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste, ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHU lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa. Era berean, diruz lagundutako beste ekintza batzuetan jaso ez diren Europako proposamenak prestatzeko aholkularitza gastuak ere sartu ahal izango dira.

6.3. Gehienez ere 6.000 euro eskatu ahal izango dira ikertalde bakoitzeko, eskaeran parte hartzen duen taldeko pertsona kopurua edozein dela ere, eta 30.000 euro proiektuko.

6.4. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua osorik edo zati batean.

7. oinarria. LANKIDETZA PROIEKTUEN ESKAERAK EBALUATZEA.

7.1. Modalitate honetan aurkezten diren eskabideen ebaluazio irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|--|---------|
| 1. Proposamenaren kalitate zientifiko-teknologikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren interesa Europar Batasunaren esparru programari edo Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari dagokionez (10 puntu). • Proposamenaren originaltasuna edo berritasuna (10 puntu). • Metodologiaren egokitasuna (10 puntu). | 30 |
| 2.- Ikertalde eskatzaileen kalitate zientifiko teknikoa: ikertalde eskatzaileek aintzatetsiak izan ziren deialdian egindako ebaluazioan lortutako batez besteko puntuazioa (beharrezkoa izanez gero, zuzenketa faktore bat erabiliko da deialdietan lortutako puntuazioak araupetzeko). | 30 |
| 3.- Proiektuaren bideragarritasuna: (2) <ul style="list-style-type: none"> • Laneko plan bideragarri eta posibilista (10 puntu). • Europako proiektu proposamena: Bazkideak bilatzeko eta Europar Batasunari proiektua proposatzeko plana. LTC, JRL edo UII/IIIP jardueren proposamena: Proiektua egokitzea dagokion erakundearen estrategiara (10 puntu). Europako proiektu proposamen baten kasuan, irizpide honetan lortutako | 20 |

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|---|------------|
| puntuazioa 1,2 faktorearekin biderkatuko da osasun arloko proposamenetarako, eta ez da inoiz ere izango atalari emandako 20 puntuko gehienekoa baino handiagoa. | |
| <p>4.- Proposamenaren diziplinartekotasun maila eta inplikaturako taldeen kopurua.</p> <p>5 puntu emango dira parte hartzen duen ikertalde bakoitzeko, nahitaezko gutxienekotik aurrera, eta 5 puntu gehigarri taldeak diziplina desberdinetakoak badira (20 puntu gehienez).</p> <p>Puntuak = (TALDE kop. - 2) x 5 + GM x 5.</p> <p>Non GM izan daitekeen 1 edo 0, kontuan izanik ikertaldeak diziplina desberdinetakoak diren ala ez.</p> | 20 |
| BALORAZIO OROKORRA | 100 |

7.2. Honez gain, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeretan, 2 puntu gehituko zaizkio ebaluazioaren azken emaitzari.

7.3. Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 50 puntutik gorakoa izatea 1., 2. eta 3. irizpideen puntuazioen batura.

7.4. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ofizioz baloratuko ditu 2. eta 4. irizpideak, bai eta 3., oharrean aipaturako zuzenketa faktorea eta IN emakumea izatearen ondoriozko gehikuntza ere.

7.5. 1. eta 3. irizpideen balorazioa IISIGren bidez egingo da.

2. MODALITATEA: HASIBERRIAK BURU DITUZTEN IKERKETA PROIEKTUAK

8. oinarria. HASIBERRIAK BURU DITUZTEN IKERKETA PROIEKTUETARAKO MODALITATEAREN HELBURUA

Deialdiaren modalitate honen helburua da ikertzaile hasiberrien lidergoa sustatzea, ikerketa proiektuetan ikertzaile nagusi izatera iritsiz, bai eta, horrela, ikertalde berriak sortuz, egungo ikertaldeetan ikerketa ildo berriak garatuz edo sendotuz, eta egungo ikertaldeetako langileen lidergo gaitasuna handituz.

Modalitatearen oinarrizko helburuak honako tipologia hauetan biltzen dira:

1. UPV/EHU n sartu berri diren eta oraindik aintzatetsitako ikertalde batean integratu ez den pertsonalaren ikerketa jarduerari hasiera ematen laguntzea.
2. Ikerketa lerro bat sendotzen laguntzea, ikertalde bat sortzeko edo lerro propio bateko lider gisa lehendik dagoen batean integratzeko.
3. Ikertalde batean integratutako gazteen ikerketa ildo berri bat sortzeko lidergoa babestea.

9. oinarria. IKERTZAILE HASI BERRIAK BURU DITUZTEN PROIEKTUEN IZAERA.

9.1. Modalitate honetan, bost jakintza arloetako ikerketa proiektuak sartzen dira: zientziak, ingeniariak eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak eta artea eta giza zientziak.

Modalitate horren barruan, honako proiektu mota hauek daude:

- a) Funtsezko ikerketa proiektu esperimentalak eta/edo teorikoak, jakintza zientifikoaren eta kalitate egiaztatuko ikerketaren sorrera eta aurrerapen esanguratsua sustatzera bideratuak.
- b) Ikerketa proiektuak, gizartearen erronka eta erronka handiei lotutako arazoak konpontzera bideratutako garapen teknologikoko eta esperimentazioko hurrengo faseetan aplikatzeko.

9.2. Bereziki bultzatuko dira, baztertzailerik ez den arren, diziplina arteko proiektuak, gizarte intereseko erronkei heldu ahal izateko, bereziki GJHen (EHUagenda 2030) berezko agendarekin eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean txertatutako RIS3 Euskadi Estrategiarekin lotuta.

9.3. Laguntza horietako bat genero ikuspegiaren eta trans errealitatearen ikerketa sustatzen duen proiektu baterako gordeko da, 5. GJHri lotuta, baldin eta gai horri buruzko eskaerak badaude eta 12.4 oinarrian ezarritako gutxienezko puntuazio-atalasea

gainditzen badute. Plaza hori hutsik geratzen bada, kupo orokorra gehituko da.

9.4. Deialdiko modalitate honi 275.000 euro esleituko zaizkio.

9.5. Eskaerak ingelesez idatzita egongo dira.

10. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

10.1. Ikertaldeak IN bakar batek eta gainerako ikertzaileek osatuko dituzte, aurkezten den proiektua behar bezala gauzatzeko kide kopuru egokia iritzita.

10.2. Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Doktore izatea.

b) UPV/EHUrekin kontratu harremana eta lanaldi osoko dedikazioa izatea.

c) Deialdia argitaratzen den unean gehienez 40 urte izan eta honako kasu hauetakoren batean egon:

- i. Aldez aurretik proiektu, kontratu, zuzeneko dirulaguntza edo ikertalde baten IN ez izatea.
- ii. Proiektuko, kontratuko, zuzeneko dirulaguntzako, taldeko edo ikerketako INa izan bada, bakarka ez izatea; eta IN edo IP kide gisa parte hartu duen ekintza horietan lortutako finantzaketa metatuaren zenbatekoa 100.000 eurotatik gorakoa ez izatea.
- iii. Bakarka ikertzeko proiektu, kontratu edo zuzeneko dirulaguntza baten IN izan bada, ekintza horien IN gisa lortutako finantzaketa metatuaren zenbatekoa 20.000 eurotatik gorakoa ez izatea.

Aurreko kasuetan, ez dira ikerketa proiektutzat hartuko giza baliabideen deialdi baten esparruan jasotako laguntzak (Ramón y Cajal, Juan de la Cierva, Ikerbasque eta antzekoak), ez eta mugikortasun laguntzak ere.

d) Kolektibo hauetako baten kide izatea:

- i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
- ii. Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpustu iraunkur batean finkatzeko zain dauden kontratudun irakasleak
- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko kontratua), baldin eta indarrean dagoen kontratuak barne hartzen badu gutxienez laguntza hori gauzatzeko epea.

10.3. Behar bezala egiaztatutako amatasun-, aitasun-, adopzio- edo harrera-aldiak eta seme-alabak zaintzeko eszedentzia-aldiak gehienez 40 urtera luzatuko dira 10.2.c oinarrian ezarritako eskabideak aurkezten diren unean.

10.4. Ikertaldea osatzen duten gainerako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Kolektibo hauetako baten kide izatea:

i. 10.2 oinarriko d) paragrafoan aipatutakoak.

ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluaaren modalitatean kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileak).

iii. Kontratutako prestakuntza bidean dagoen doktoratu aurreko pertsonala, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluko modalitatean. Kasu horretan, nahitaezkoa da tesi zuzendaria ere ikertalde eskatzailean sartuta egotea.

iv. Unibertsitate ospitaleetako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartu doktoreak.

v. Lanaldi osoko kontratua duten bitarteko lan kontratadun irakasle doktoreak, 10.2.d.ii. puntuan sartzen ez direnak.

b) Irakasle eta ikertzaileen kontratu bat izatea, gutxienez laguntza hau gauzatzeko epea barne hartzen duena.

10.5. Ikerketa-taldea proiektua gauzatzeari dagokionez bakarrik ebaluatuko da, eta parte-hartzea memorian behar bezala justifikatu beharko da.

10.6. Ikertaldeko ezein kidek (ez eta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, berariaz geldituko da proiektu horietatik kanpo.

10.7. Ezin izango dute modalitate honetako eskabide batean parte hartu ez ikertzaile nagusiak, ez ikertzaile-taldeko ezein pertsonak, baldin eta 2023ko deialdiko ikertzaile hasiberriek gidatutako proiektuen modalitatean finantzaketa lortu badute.

11. oinarria. IKERTZAILE HASI BERRIAK BURU DITUZTEN PROIEKTUEN EZAUGARRIAK

11.1. Ikerketa proiektuen iraupena **bi urtetakoa** izango da.

11.2. Eskatutako laguntzak honako hauetarako finantzaketa jaso ahal izango du:

a) Langileen kontratazioa

b) Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi behar izango dira nahitaez eta dira, inola ere, guztira 3.000

eurotatik gorakoa izango.

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektua amaitzeko sei hilabete baino gutxiago gelditzen direnean. Epe hori igarotakoan, epigrafe honi esleitutako finantzaketa, erabili ez dena, kendu egingo da.

Material suntsigarria. Proiektua egokiro garatzeko beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada. Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, baita ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.

- c) Bidaiak eta dietak: ikerlana dela-eta egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, bai eta, gehien dela, lau aste arteko egonaldi laburrenak ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskarian. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarrizketak, etab), joan-etorrien kostua ere bidaien eta dieten atalean sartuko da. Konputatu ahal izango da ere kongresuetan izena emateko kuotak ordaintzea, baldin eta unean uneko proiektuaren ondoriozko emaitzak aurkezteko bada.

- d) Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste, ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHU lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

11.4. Gehien dela, 40.000 euro eskatu ahal izango dira proiektu bakoitzeko, eskaeran parte hartzen duen taldeko pertsona kopurua edozein dela ere.

11.5. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua osorik edo zati batean.

12. oinarria. IKERTZAILE HASI BERRIAK BURU DITUZTEN PROIEKTUEN ESKAEREN EBALUAZIOA.

12.1. Modalitate honetan aurkezten diren eskabideen ebaluazio irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|--|----------------|
| 1.- Eskabidearen INaren historial zientifikoa eta beronek, proposatutako ikerketa jardueraren gai arloarekin lotuta egindako | 15 |

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|--|------------|
| ekarpen berriak. | |
| 2.- Aurkeztutako ikerketa-proiektuaren diziplinartekotasuna, planteatutako helburuak lortzeko arlo desberdinetako ikertzaileen inplikazioa behar bezala justifikatuz. | 10 |
| 3.-Proiektuaren kalitate zientifiko eta teknikoa <ul style="list-style-type: none"> • Helburuen berritasuna eta garrantzia, eskabideari dagokion arloaren berriazko jakintzaren egoerari dagokionez (20 puntu). • Bat etortzea GJHen berezko agendarekin, EHUagenda 2030ekin eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean txertatutako RIS3 Euskadi Estrategiarekin lotutako gizarte intereseko erronkekin Bereziki, proposatutako ikerketan genero-ikuspegia nola txertatzen den ebaluatuko da (10 puntu). | 30 |
| 4.- Proposamenaren bideragarritasuna: ikerketa diseinatzea, metodologia eta lan plana planteatutako helburuetara egokitzea | 30 |
| 5.- Aurreikus daitekeen eragina (zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa, soziala, etab.) aurreikusitako emaitzek (argitalpenak, patenteak, jakintzaren edo teknologiaren transferentziaren aurrerapena, etab.) nazioan eta nazioartean. | 15 |
| BALORAZIO OROKORRA | 100 |

12.2. Honez gain, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeretan, 2 puntu gehituko zaizkio ebaluazioaren azken emaitzari.

12.3. Ebaluazio irizpideen balorazioa kanpoko ebaluazio agentzia baten bidez egingo da lehentasunez. Agentzia hori UNIBASQ – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentziaren bat izan daiteke. Nolanahi ere, IISIGk ebaluazio-modu egokia onartuko du, aipatutako agentziek ebaluazioa egiteko eskaintzen dituzten eskaeren eta epeen kopuruaren arabera, eta deialdiaren ebazpena 2024. urtea amaitu aurretik egingo dela bermatuko du.

12.4. Finantzaketa lortzeko, beharrezkoa da 1etik 5era bitarteko irizpideen baturan lortutako puntuazioa 50 puntutik gorakoa izatea.

3. MODALITATEA: HORIZONTE EUROPA PROGRAMAKO PROIEKTUETAKO LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK (HE)

13. oinarria. HORIZONTE EUROPA (HE) PROIEKTUETAKO LIDERGO MODALITATEAREN XEDEA.

Deialdi honen helburua da UPV/EHUren parte hartzea eta lidergoa sustatzea Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Markoaren (Horizonte Europa) deialdietan, lankidetzaren proiektuen lidergoa eta koordinazioa erraztuko duten politika proaktiboak ezarriz; bai eta UPV/EHUko pertsonalak gidatutako nazioarteko partzuergoak sortzen laguntzea; UPV/EHUK Horizonte Europan koordinatutako proiektuen kopurua handitzea; diziplina eta muga anitzeko bikaintasuneko ikerketa bultzatzea eta sustatzea ere, UPV/EHUren jardura zientifiko eta teknologikoaren nazioartekotzea areagotzeko.

Modalitatearen oinarrizko helburuak

- UPV/EHUko pertsonalaren lidergoa sustatzea nazioarteko partzuergoen sorreran.
- UPV/EHUK Horizonte Europa esparru programan parte har dezan bultzatzea, UPV/EHUko pertsonalak koordinatutako ikerketa proiektuekin.
- UPV/EHUK Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC, European Research Council) laguntza proposamenetan parte har dezan laguntzea.

14. oinarria. HE PROIEKTUETAN LIDERGOA LORTZEKO LAGUNTZEN IZAERA.

14.1. Modalitate honetan kategoria hauek sartzen dira:

- a) UPV/EHUko pertsonalak koordinatutako Horizonte Europa Esparru Programako lankidetzaren proiektuak, baldin eta partzuergoan parte hartzen duten bazkideen kopurua, partzuergoaren edo proiektuaren tamaina eta/edo UPV/EHUK jasotzen duen aurrekontua kontuan hartuta, kudeaketa eta koordinaziorako zailtasun erantsia badakarte, eta euskarri gehigarria behar badute, betiere finantzaketa iturririk edo kudeaketari laguntzeko egiturarik ez badute premia horiek betetzeko.

Proiektuek gauzatze fasean egon behar dute deialdi honetarako eskabideak aurkezteko azken egunean, edo, gutxienez, dirulaguntzetarako hitzarmena dagoeneko sinatuta izan behar dute.

- b) Europako Ikerketa Kontseiluari (ERC) aurkeztutako proposamenak, A batekin positiboki ebaluatu direnak, baina, aurrekontu arrazoiengatik, finantzatu ezin izan direnak.

Aukeratu ahal izango dira, deialdi honetarako eskabideak aurkezteko azken egunean ebatzitako azken deialdian ebaluazio hori lortu duten proposamenak.

14.2. Deialdi honen 14.1.a oinarrian zehaztutako kategoriatik kanpo geratzen dira berariaz funts nazionalekin (Co funded European Partnerships) baino finantzatu ez diren proiektuak eta proiektua kudeatzeko eta koordinatzeko lanak egiteko aurrekontua duten proiektuak.

14.3. Deialdi honen 14.1.b oinarrian zehaztutako kategoriatik kanpo geratzen dira, berariaz, beharrian horiek bete ditzaketen beste finantzaketa iturri edo kudeaketa egitura batzuk dituzten proposamenak, hala nola Europa Bikaintasuneko laguntzak edo antzekoak.

14.4. Deialdiko modalitate honi 75.000 euro esleituko zaizkio, eta zenbateko hori aldatu ahal izango da jasotako eskaeren eta aurrekontu baliabideen arabera.

14.5. Eskaerak ingelesez idatzita egongo dira.

15. oinarria. ESKATZAILEEK HE PROIEKTUETAN LIDERGO MODALITATERAKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

15.1. Eskabideetako IN-ek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Doktore izatea.
- b) UPV/EHU arduraldi osoz aritzea.
- c) Kolektibo hauetako baten kide izatea
 - i. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpustu iraunkur batean finkatzeko zain dauden kontratudun irakasleak
- d) Gainera, honako egoera hauetako batean egotea:
 - i. 14.1.a. oinarrian definitutako eta 14.2 oinarrian zehaztutako baldintza betetzen duen lankidetzaren proiektu baten koordinazioa egitea.
 - ii. ERC proposamen bat aurkeztu izana 14.1.b oinarrian deskribatutako egoeran eta 14.3 oinarrian zehaztutako baldintza betetzen duena.

15.2. IN-ak kontratu harremana izan beharko du UPV/EHUrekin.

15.3. Deialdi honen 14.1.a. oinarrian deskribatutako kategoriarako laguntza eskaeren kasuan, eskabidean beste ikertzaile batzuk ere sartu ahal izango dira, INaz gain, betiere proiektuaren ikerketa-taldearen barruan badaude (ez dira barnean hartzen proiektuaren kargura kontratatutako ikertzaileak) eta kontratuaren iraupenak laguntza hau gauzatzeko

aldia hartzen badu gutxienez.

15.4. Deialdi honen 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriarako laguntza eskaera IN pertsonak egingo du, banaka, eta talde eskatzaileko beste kiderik gabe.

15.5. Ikertaldeko ezein kidek ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, berariaz geldituko da proiektu horietatik kanpo.

15.6 Inork ezingo du parte hartu eskabide bateko taldean (ez IN gisa, ez ikertzaile taldeko kide gisa), baldin eta indarrean dagoen deialdiko modalitate horri lotutako aurretiazko laguntza baten onuradun izan bada.

16. oinarria. HE PROIEKTUETAN LIDERGOA LORTZEKO LAGUNTZEN EZAUGARRIAK.

16.1. Laguntza gauzatzeko epea **bi urtekoa** izango da.

16.2. Eskatutako laguntzak honako hauetarako finantzaketa jaso ahal izango du:

a) Langileen kontratazioa

b) Material suntsigarria. Proiektuaren koordinazio jardueretarako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.

c) Egin beharreko bidaia eta dietak, proiektuaren jarduerak koordinatzea helburu.

d) Beste gastu batzuk, betiere aurreko partidetan jaso ez diren kontzeptuei buruzkoak eta behar bezala justifikatuak, baldin eta eskabidearen oinarri den proiektuaren koordinazioarekin zuzenean lotuta badaude eta finantzatutako beste ekintza batzuetan sartuta ez badaude.

16.3. Modalitate honetako proiektu bakoitzean 20.000 eurotako gehieneko dirulaguntza eskatu ahal izango da 14.1.a oinarrian deskribatutako kategoriako eskaerretarako; eta 10.000 eurotako 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriako eskaerretarako.

16.4. Salbuespen gisa, IN pertsona bera 15.1.d.i. oinarrian deskribatutako egoeran balego aldi berean bi proiektutarako edo gehiagotarako, edo aldi berean 15.1.d.i. eta 15.1.d.ii. oinarrietan deskribatutako egoeretan balego, eman beharreko gehieneko dirulaguntzaren gehikuntza baloratu ahal izango da, 16.3 oinarrian deskribatuta.

Aurreko paragrafoan deskribatutako kasuetako edozeinetan, IN pertsonak eskaera bakarra egin beharko du, aldi bereko inguruabarrak barne.

16.5. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua osorik edo zati batean.

17. oinarria. HE PROIEKTUETAN LIDERGOA LORTZEKO LAGUNTZA ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

17.1. Deialdi honen 14.1.a oinarrian deskribatutako kategoriarako modalitate honetan aurkezten diren eskabideetarako (proiektu koordinatuak) ebaluazio irizpideak honako taula honetan zehazten dira:

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|--|------------|
| Partzuergoaren tamaina <ul style="list-style-type: none"> • bazkide edo gehiago (60 puntu) • 7 eta 14 bazkide artean (40 puntu) • 6 bazkide arte (10 puntu) | 60 |
| Partzuergoaren aurrekontu osoa <ul style="list-style-type: none"> • 6.000.000 euroatik gora (20 puntu) ▪ eta 6.000.000 euro artean (12 puntu) ▪ euroatik gora (8 puntu) | 20 |
| UPV/EHU gaiztatutako aurrekontua <ul style="list-style-type: none"> • 500.000 euroatik gora (20 puntu) • 300.000 eta 500.000 euro artean (12 puntu) • 300.000 euroatik gora (8 puntu) | 20 |
| BALORAZIO OROKORRA | 100 |

17.2. IN pertsona 15.1.d.i. oinarrian aldi berean bi proiektutarako edo gehiagorako deskribatutako egoeran egonez gero, 17.1 oinarrian deskribatutako irizpideak puntuazio altuagoa lortzen duen proiekturako aplikatuko dira, eta, gainera, lortutako puntuazioa 1,2 zuzenketa faktorearekin biderkatuko da.

17.3. IN pertsona 15.1.d.i. eta 15.1.d.ii oinarrietan deskribatutako egoeretan aldi berean egonez gero, 17.1 oinarrian deskribatutako irizpideak aplikatu ondoren lortutako puntuazioaren emaitza 1,2 zuzenketa faktorearekin biderkatuko da.

17.4. IN pertsona, gainera, Horizonte Europa programaren proiektu osagarrien koordinatzailea bada, nahiz eta proiektu horiek 14.1.a oinarrian ezarritako baldintzak bete ez, beti ere, laguntza hori gauzatu behar deneko aldiaren erdian gutxienez aktibo irauten badu, lortutako puntuazioa 1,1 puntuazio faktorearekin biderkatuko da.

17.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ofizioz baloratuko ditu 17.1. oinarrian

deskribatutako irizpideak.

17.5. Deialdi honen 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriarako modalitate honetan aurkezten diren eskabideen balioespena (ERC) Europako Batzordeak proposatuta eta IISIGk onartutako balioespenean egindako iradokizunekin bat etorrita egingo da.

4. MODALITATEA: LATINOAMERIKAREKIKO IKERKETA PROIEKTUAK

18. oinarria. LATINOAMERIKAKO PROIEKTUEN MODALITATEAREN XEDEA.

Deialdiaren modalitate honen xedea da 2023 eta 2024 urteetan zehar Latinoamerikarekiko ikerketa harremanak sustatzeko laguntzak ematea.

Laguntzak "hazi finantziazioa" izaerakoak dira, parte hartuko duten ikertaldeei laguntza emateko, beste laguntza edo funts gehigarri batzuk eskuratu eta lor ditzaten, Latinoamerikako unibertsitateekin mantendutako ikerketa harremanak sustatzeko eta sendotzeko.

19. oinarria. LATINOAMERIKAKO PROIEKTUEN IZAERA.

19.1. Proiektuen tipologia bikoitza proposatzen da:

- a) Ikerketa bultzatzeko proiektuak: Ikerketa sustatzeko proiektuak modu independentean proposa dakizkieke elkarlaneko ikerketa proiektuei. Ikerketa sustatzen duten ekintzetan edo ekimenetan oinarrituta egon beharko dute, eta ikertzaileei beren ikerketaren emaitzak garatzeko eta zabaltzeko aukera emango dieten tresnak eskaintzera bideratuta egon beharko dute.
- b) Elkarlaneko ikerketa proiektuak: Elkarlaneko ikerketa proiektuek, oro har lehiakorrak diren arloei lotutako arazoak eta erronkak konpontzera bideratuta egon behar dute, eta Nazio Batuetako estatu kideek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren eta "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskadi 2030 Planean" txertatutako RIS3 Euskadi Estrategiaren barruan onartutako GJHei erantzun bateratua emateko gai izan behar dute.

19.2. Bi proiektu tipologia horiek ikerketa bateratua bultzatzeko helburuari erantzuten diote, batez ere jakintzaren bi alderdi hauetan: osasuna eta hezkuntza. Hala ere, UPV/EHUren Graduondoko Sare Latinoamerikarraren eskaintza akademikoan koka daitekeen edozein jakintza ardatz edo polo ere finantzatzen da.

19.3. Ikerketa proiektu horiek oso fokalizatuta egon daitezke problematika zehatz batean edo izaera zabalagoa izan dezakete. Lehentasuna emango zaie diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko ikuspegia duten proiektuei eta gizartean eragin handiena izan dezaketenei.

19.4. Lehentasuna emango zaie eskatutako edo abian dauden proiektuekiko osagarritasuna frogatzen duten ikerketa proiektuei, bai eta tokiko, estatuko eta, batez ere, nazioarteko beste deialdi batzuekiko proiektzioa frogatzen duten proiektuei ere. Deialdi honen laguntza programa horietan sartzeko palanka izango da.

19.5. Deialdiko modalitate honi 70.000 euro esleituko zaizkio gehienez.

Base 20. REQUISITOS DE PARTICIPACIÓN EN LOS PROYECTOS CON LATINOAMÉRICA**20. oinarria. LATINOAMERIKAKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.**

20.1. -Laguntzak UPV/EHUko ikertzaileak buru dituzten ikertaldeetarako dira, baldin eta ikertaldean, gutxien dela, Latinoamerikako unibertsitate bateko ikertzaileek parte hartzen badute. Lehenetsuna emango zaie Latinoamerikako Graduondoko Sarea osatzen duten Latinoamerikako unibertsitateetako pertsonak parte hartzaile dituzten proiektuei, lankidetzaz hitzarmen espezifikoarekin.

20.2. - Proiektu bakoitzean, bi tipologietako edozeinetan, gutxienez Latinoamerikako Unibertsitate batek hartu behar du parte, baina positiboki balioztatuko da unibertsitate bat baino gehiagotako ikertzaileen lankidetzaz. Zerrenda esteka honetan kontsulta [daiteke](#).

20.3. IN pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Doktore izatea.
- b) UPV/EHUrekin kontratu harremana eta lanaldi osoko dedikazioa izatea.
- c) Kolektibo hauetako baten kide izatea:
 - i. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpustu iraunkur batean finkatzeko zain dauden kontratudun irakasleak

20.4. Proiektuek, justifikatuta badago, bigarren ikertzaile nagusi bat izango dute. Ikertzaile nagusi horrek 20.3 oinarriko baldintzak ere bete beharko ditu, eta ikertzaile nagusiaren absentsian, ikertzaile nagusi gisa jardungo

20.5. Ikerketa taldea osatzen duten gainerako pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

UPV/EHUko ikertzaileen kasuan:

- o Talde hauetako batekoa izatea:
 - i. 20.3.c. atalean zerrendatutakoak
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan modalitatean kontratatutako langileak (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren

Espainiako Sistemaren sartzeko kontratua), baldin eta indarrean dagoen kontratuaren iraupenak laguntza hau gauzatzeko epea hartzen badu gutxienez.

- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikulua modalitatean UPV/EHU kontratatutako doktoratu aurreko langileak. Kasu horretan, beharrezkoa da tesi-zuzendaria ere ikerketa-talde eskatzailearen barruan egotea.
- iv. Unibertsitate-ospitaleetako irakaskuntza-unitateetako irakasle elkartu doktoreak.
- v. Lanadi osoko kontratua duten bitarteko lan kontratudun irakasle doktoreak, 10.3c.ii puntuan sartu gabeak.
- o Irakasle eta ikertzaile kontratu bat izatea, gutxienez laguntza hau gauzatzeko aldia hartzen duena

Latinoamerikako unibertsitate bateko langileen kasuan, dagokien unibertsitatearekin duten lotura justifikatu beharko dute.

Inola ere ezingo du parte hartu UPV/EHUtik kanpoko eta Latinoamerikako unibertsitate batekoa ez den langile batek proiektuko taldean.

20.6. Ikertaldeko ezein kidek (ez eta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, berariaz geldituko da proiektu horietatik kanpo.

20.7. Positiboki balioetsiko dira emakumeek integratutako eta/edo gidatutako proiektuak. Balorazio hori "lantaldearen kalitateari, ibilbideari eta egokitasunari" buruzko ebaluazio irizpidean islatuko da.

21. oinarria. LATINOAMERIKAREKIKO PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

21.1. Deialdiaren modalitate honen bidez diruz lagun daitezkeen gastuak honako hauek dira, betiere proiektuaren garapenarekin zuzenean lotuta badaude:

- a) Material suntsikorra.
- b) Ikertzaileen mugikortasunerako bidaia eta egonaldi gastuak.
- c) Kongresuetara joateko gastuak.
- d) Argitalpen zientifikoak.
- e) Jardunaldiak eta workshop-ak antolatzea.
- f) Proiektuaren gauzatzearekin zerikusia daukaten bestelako gastuak.

Inola ere ez finantzatuko material inbentariagarria, ezta proiektu horien kontura ikertzaileak kontratazea ere

21.2.- Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua osorik edo zati batean. Deialdi hau ebatzen den egunetik aurrera egindako gastuak baino ezin izango dira egotzi.

21.3.- Ikerketa proiektu finantzarri bakoitzari dagokion banakako zenbatekoa, kasu bakoitzean, jarduketaren benetako kostu finantzarriaren arabera zehaztuko da, helburuen eta beharren eta aurrekontu baliabideen arabera.. Nolanahi ere, ekintza bakoitzeko finantzatu daitekeen gehieneko aurrekontua 10.000€-koa izango da.

22. oinarria. LATINOAMERIKAREKIKO PROIEKTUEN ESKAEREN EBALUAZIOA.

22.1. Modalitate honetako eskabideen ebaluazioa fase bakarrean egingo da, eta "ad hoc" eratutako balorazio batzorde bakar batek egingo du. Batzorde hori UPV/EHUko kide hauek osatuko dute, hain zuzen: Ikerketaren arloko errektoreordeak edo beronek eskuordetutako pertsonak; Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordeak edo beronek eskuordetutako pertsonak; eta Graduondoko Latinoamerikako Sareko zuzendariak.

Balorazio batzorde hori arduratuko da aurkeztutako eskabideak aztertzeaz, ebaluatzeaz eta balioesteaz.

22.2. Modalitate honetan aurkezten diren eskabideen ebaluazio irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|---|---------|
| 1.- Proposamenaren kalitate zientifiko tekniko, garrantzia eta bideragarritasuna. | 40 |

| IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|---|------------|
| 1. Lantaldearen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna. Irizpide horretan, emakumeen lidergoaren eta genero-berdintasunaren balorazioak kontuan hartuko du bi sexuetakoko kideen ehunekoa % 40 edo handiagoa izatea. Era berean, IN pertsonetako bat gutxienez emakumea izatea baloratuko da. Bai genero-berdintasunaren irizpidea, bai emakumeen lidergoarena, gehienez ere 10 punturekin baloratu ahal izango dira, hurrenez hurren. | 30 |
| 3.- Aurrekontua lan planera egokitzea, baterako finantzaketaren eskema eta beste laguntza batzuen palanka efektuaren proiektzioa | 10 |
| 2. 4.- Proposamenaren diziplinartekotasun maila eta inplikaturako unibertsitateen kopurua. | 20 |
| BALORAZIO OROKORRA | 100 |

22.3. Batzordeak beharrezko ikusten dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratuko direla bermatzeko.

22.4. Balorazio batzordeak oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu eskabideak eta aurkeztutako agiriak, gehienez ere, balioespenean 100 puntu lortu ahal izango direlarik.

22.5. Batzordeak ezarri ahal izango du gutxienerako puntuazioa lortzen ez duten eskabideek ez dutela parte hartuko laguntzak banatzeko prozesuan, eta, ondorioz, ez direla laguntzen xede izango.

22.6. Balioespen batzordearen erabakiak bukaerakoak izango dira, eta aho batez edo gehiengoz lortu ahal izango dira. Txostenak eta eztabaidak isilpekoak izango dira.

OINARRI OROKORRAK

23. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

23.1. Eskaera proiektuaren ikertzaile nagusiak egin beharko du.

23.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> eta Ikerkuntza Errektoreordetza bideratua.

Erregistroa egiteko, honako hauek adierazi beharko dira:

- Norakoa: Lehenik eta behin: "Ikerketako Errektoreordetza" eta bigarrenik: "Deialdien ikerketa kudeaketa (U02000256)".
- Eskaera: Eskaera zer modalitatetan egingo den adierazi beharko da:
 - "1. modalitatea. Lankidetzat proiektuak."
 - "2. modalitatea. Hasi berrien proiektuak"
 - "3. modalitatea. Lidergoa Europako proiektuetan"
 - "4. modalitatea. Latinoamerikarekiko proiektuak"

Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, sinadura horiek **elektronikoak** izan beharko dute beti, eta **aitortutako ziurtagiri baten bermea** izan beharko dute.

23.3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa, PDF formatuan, modalitatearen arabera izango da:

- 1. modalitatea. 1. Eranskina_Eskaera + 1. Eranskina_Memoria.
- 2. modalitatea.
 - a. 2. Eranskina_Eskaera + 2. Eranskina_Memoria.
 - b. Proiektuko IN pertsonaren curriculum vitae laburtua (CVA), FECyT (<https://cvn.fecyt.es/editor/>) formatuaren arabera.
- 3. modalitatea. 3. Eranskina_Eskaera
- 4. modalitatea. honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - a. 4. Eranskina_Eskaera. Besteak beste, datu hauek jasoko ditu:
 - Proiektuaren izena.
 - Lan taldea.

- Proiektuaren memoria, helburuak eta lan plana adierazita.
- Aurrekontua, kontzeptu nagusiei egotz dakizkiekeen gastu xehatuak adierazita.

b. Proiektu bakoitzeko ikertaldeko kideen curriculum vitae laburtua (CVA), FECyT (<https://cvn.fecyt.es/editor/>) formatuaren arabera.

Deialdiko modalitate bakoitzerako eskabide inprimakiak Ikerkuntza errektoreordetzaren web gunean deskargatu ahal izango dira.

23.4. Deialdi honen laguntza eskabideak aurkezteko epea **2024ko ekainaren 6an** hasiko da eta **2024ko ekainaren 26an** amaituko da, 13:30etan (Espainiako penintsulako ordua).

23.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak edo Graduondoko Latinoamerikako Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako proposamena behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko.

23.6. Deialdian parte hartzeak esan nahi du deialdiaren oinarriak berariaz onartzen direla.

24. oinarria. ESKABIDEAK KUDEATZEA, IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

24.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzari dagokio, Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzaren bitartez, deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

24.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta eskabideak berrikusi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskabideen zerrenda argitaratuko du Errektoreordetzaren web atarian, beharrezko datu edo baldintza guztiak jaso ez dituzten modalitateen arabera, eta zein zuzendu edo zuzendu behar diren zehaztuko du. Bost egun balioduneko epea irekiko da, zerrenda hori argitaratzen den egunetik hasita, eskatutako dokumentazioa osatu edo zuzentzeko. Epe hori igarota, zuzendu ez diren eskabideak atzera egindakotzat joko dira.

24.3. Eskaera inprimakia gutxieneko edukitzat hartuko da, eta zuzendu ezinekotzat joko da.

25. oinarria. LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA ETA LAGUNTZAREN ZUZKIDURA

25.1. Eskabideen ebaluazioa amaitu ondoren, izendatutako batzordeek ebazpen proposamenak egingo dituzte. IISIGk 1., 2. eta 3. modalitateen ebazpen proposamenak egingo ditu, 7. oinarrian (1. modalitatea), 12. oinarrian (2. modalitatea) eta 17. oinarrian (3. modalitatea) ezarritako irizpideei eta aurrekontu erabilgarritasunari jarraiki lortutako puntuazioaren arabera. Oinarri honetan bertan ezarritako irizpideak balioesteko sortutako 22. oinarrian aipatutako batzordeak 4. modalitateko ebazpen proposamena egingo du. Ebazpen proposamena eta aurkeztutako eskabideen behin behineko puntuazioa Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko dira.

25.2. Eskatzaileek bost eguneko epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren

biharamunetik hasita, laguntza onartzen dutela edo hari uko egiten diotela adierazteko, edo egoki leritzekeen alegazioak aurkezteko.

Alegazioak oinarritzeko, IN pertsonak proiektuaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango du, posta elektronikoaren bidez, deialdiak.dgi@ehu.eus helbidera.

Alegazioen dokumentua 23. oinarrian ezarritako jarraibideen arabera aurkeztuko da.

25.3. Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko eskubidea galdu duela ulertuko da.

Ikerketaren arloko errektoreordetzaren erabakiaren bidez argitaratuko da ikerketaren webgunean laguntza hauek emateko erabakia eta eskatzaile bakoitzari banako ebazpena igorriko zaio.

25.4. Banakako erabakiaren kontra berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

25.5. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

25.6. Deialdi honetako lau modalitateen bidez esleitutako laguntzak hornitzeko, behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, eskabidearen IP gisa agertzen den pertsonak deialdiaren ebazpenean proposatutako finantzaketa baldintzak onartzen dituen agiria sinatu beharko du.

25.7. Laguntza onartzeak esan nahi du, besteak beste, laguntza jasoko duen proiektua gauzatzeko erabili behar dela.

26. oinarria. JARRAIPENA

26.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei emandako laguntzen jarraipena egiteko prozedurak.

26.2. Proiektua indarrean dagoen bitartean eskabidean aurkeztutako taldeen osaera aldatzen bada, Ikerketako errektoreordeari eskatu beharko zaio, eta berak kudeatuko du ebazpena. Ez da ekipoa baxarik onartuko, ez bada ezinbesteko kausarengatik.

26.3. Laguntzaren indarraldia amaitu eta hurrengo hilean, txostena egin beharko da lortutako emaitzak jasota. Amaierako txosten hori idazteko, horretarako osatutako formulario bat erabili beharko da, ikertzaile nagusiak sinatuta.

26.4. Amaierako txostena entregatu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egingo da:

- Ikertaldearen arteko lankidetzaren proiektuen kasuan: ebaluazioa eskaeran sartutako ikertaldeetako kideen baterako emaitzetan oinarrituko da (argitalpenak, patenteak, prototipoak eta merkaturatu daitezkeen gainerako produktuak...). Bereziki, Europako

proiektu bat aurkezten laguntzeko proposamen bat prestatzeko laguntzen kasuan, proposamena lortu den ebaluatuko da.

- Ikertzaile hasi berriek gidatutako proiektuen kasuan: ebaluazioa proiektutik eratorritako ikerketa eta transferentzia emaitzetan oinarrituko da (argitalpenak, patenteak, prototipoak eta merkaturatu daitezkeen gainerako produktuak...).
- Europar proiektuetako lidergoaren kasuan: ebaluazioa proiektu koordinatuan planteatutako helburuen betetze mailaren arabera egingo da, eta proposamen berri bat aurkeztuko zaio ERCri.
- Latinoamerikarekiko ikerketa proiektuen kasuan: Latinoamerikako unibertsitateekiko ikerketa harremanak sustatzera eta sendotzera bideratutako helburuen betetze mailan oinarrituko da ebaluazioa.

26.5. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak finantzatutako ikerketa proiektu edo jarduerari dagokion ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira. Faktura horiek eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne auditoretzako zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie. Inongo kasutan ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko dokumentuak galdu direla eta.

26.6. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

27. oinarria. EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

27.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko komunikazio zientifikoko ekintza guztietan ere (txostenak, hitzaldiak, biltzarrak eta ekitaldi zientifikoak), ikertzaileek UPV/EHUrekin duten lotura adieraziko dute eta erakundearen irudi korporatiboa agertuko da, Unibertsitateak ezarri moduan.

27.2. Ikertzaileak zein erakundetako kide diren adierazteaz gainera, finantzaketa jarri duen erakundearen edo erakundeen izenak ere agertuko dira eskerrak emateko atalean. Berezi, aipatu beharko dira UPV/EHU eta deialdi hau.

27.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanez, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesak jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal

espezializatuak honela iritziko balio. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualaren titularra. Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Nolanahi ere, UPV/EHUren jabetza intelektualaren eta industrialaren araubidea errespetatu beharko da.

28. oinarria. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

28.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere haren xedea betetzat jo denean, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian eman zen laguntzaren aldeko erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Ebazpena emateko, aldezturik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean araututako administrazio prozedura bideratu beharko da, proposamena egin duen organoak, IISIGk (1., 2. eta 3. modalitateak) edo ebaluazio batzordeak (4. modalitatea) proposatuta edo txostena egin ondoren, eta banaka jakinaraziko zaio ikertaldearen INri.

28.2. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik diru laguntza jasotzen denean, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkezten bazaizkie behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, aldezturik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe. Kasu hori ez da aplikatuko 4. modalitatearen kasuan: Latinoamerikarekiko ikerketa proiektuak.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Ikerketa proiektuetako ekipoen osagai kopurua murriztea.
- f. Jarduera finantzatzeko deialdian sartzen ez diren gastuak egitea edo UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak bete gabe gauzatzea.
- g. Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo erosketaren bat eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, erabili gabeko finantzaketa kenduko da eta, hala badagokio, proiektuan laguntzen duen erakundeari itzuli beharko zaio emandako eta une horretara arte erabili gabeko kopurua.

29. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreko uspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahaliketa antzeko enak dituen organoak) aridirela.

30. oinarria. IKERKETA JARDUEREI BURUZKO DATU ETA IRIZPIDE ETIKOEN BABESA

30.1. Europako Parlamentuaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren helburua laguntza deialdi hau kudeatzea da. Fitxategi horren organo arduraduna UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordea da. Deialdian parte hartzen dutenek arautegi honek aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

30.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a. Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- b. Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1716/2011 Errege Dekretua, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, Pazientearen Autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia ere.
- c. Gizakiekin eta beren Lagin eta Datuekin Egindako Ikerketei Buruzko Etika Batzordearen (GIEB) alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostena aurkeztu, UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duen bezala, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakiak onetsi eta 2014-2-17ko 32. EHAAn argitaratuta.

30.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimendu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a. Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- b. Animaliekin ikertzearen arloko indarreko araudia bete (53/2013 ED).

c. Animalien Ongizaterako Etika Batzordearen (CEEA) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

d. Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

30.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

a. Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.

b. Arlo horretako indarreko arautegia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).

c. Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAan argitaratu zen, 32. zk.).

30.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.). 290. zenbakidun BOE, 2011ko abenduaren 2koa, ostirala.

30.6. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2024ko ekainaren 5a.

Inmaculada Arostegui Madariaga

Ikerketaren arloko Errektoreordea

Vicerrectora de Investigación